



Orga jasotzaileak gidatzeko segurtasun eta osasunari buruzko prestakuntza

C27 Lanbidea

NORENTZAT

Beren lanpostuan orga jasotzaileak erabiltzen dituzten pertsonak.

SARRERA

Indarrean dagoen araudiaren arabera¹, lantokietan orga jasotzaileak erabiltzen dituzten pertsonak prestakuntza **teoriko eta praktiko** berezia izan behar dute ekipo horrekin lotutako segurtasun eta osasunaren arloan.

Metalaren IV. Hitzarmenaren II. eranskinak prestakuntzaren iraupena eta gutxieneko edukiak ezartzen ditu.

Osarten K.E.k esandako prestakuntza eman dezake, Prestakuntzarako, Trebakuntzarako eta Enplegurako Metalaren Fundazioaren **baimena baitu horretarako** (Espediente zk.: M1909170046).

HELBURUAK

- Orga jasotzaileak segurtasunez erabiltzeari buruzko ezagutza teorikoa eta praktikoa eskuratzea.
- Lantokian ekipo horiek behar bezala erabiltzearen garrantzia baloratzea.
- Ekipo horiek erabiltzean, langileak berak eta beste pertsona batzuek dituzten arriskuez jabetzea.

OHARRA: Prestakuntzaren helburua ez da orga jasotzaile bat gidatzeko gaitasuna eskuratzea, baizik eta hura modu seguruan erabiltzen jakitea. Orgak gidatzen esperientziarik ez duten pertsonak, gainera, orgak erabiltzen trebatu beharko dira, lanpostuan erabili aurretik.

PROGRAMA

Lanen definizioa:

- Lanpostuko lanaren prozedura eta prozesu seguruaren azalpena.

Prebentzio teknika bereziak:

- Segurtasun eta osasun planaren aplikazioa zeregin zehatzean. Arriskuen ebaluazioa eta informazio espezifikoak.
- Arrisku bereziak eta prebentzio neurriak.
- Babesgailu indibidualak eta taldekoak (jartzea, erabiltzea, betebeharrak eta mantentze lanak).
- Bitarteko osagarriak, ekipoak eta erremintak.
- Ofizioan aritzean erabilitako bitarteko osagarriak, ekipoak eta erremintak erabiltzearen ondoriozko arriskuak

Prebentziorako prestakuntzan honako gai hauek azpimarratuko dira: orga jasotzailearen egonkortasuna galtzeko faktoreak, zamaren egonkortasuna galtzea, zamalanak, kargen garraioa, gidariarentzako eta oinezkoentzako arriskuak eta arrisku horiek

dagozkien prebentzio neurriak. Objektuen kontra jotzea. Objektuen arteko harrapaketak. Traumatismoak.

Prestakuntzak zati **teoriko** bat izango du, eta beste zati **praktiko** bat orga jasotzailearekin egiteko. Prestakuntza emateko, halaber, **errealitate birtualeko** baliabideak erabiliko dira.



ERABILGARRI DAUDEN DATAK (2026)

- | | |
|-----------------------|----------------------|
| Urtarrilaren 22a | Uztailaren 14a |
| Otsailaren 12a | Irailaren 10a |
| Martxoaren 11a | Urriaren 15a |
| Maiatzaren 12a | Azaroaren 12a |
| Ekainaren 15a | Abenduaren 10a |

Maiatzaren 12an eta Azaroaren 12an euskaraz emango da.

ORDUTEGIA 08:30-13:00 eta 13:30-17:00.

IRAUPENA 8 ordu

LEKUA Miguel Altuna LHII. Agirrebidea, 2. 20570. Bergara (Gipuzkoa).

MATRIKULA 165 € + BEZ

Kostu horri **bazkarirako** zerbitzatuko den luntxa gehituko zaio (**12 euro**, gutxi gorabehera).

OHARRA: Ikastaroa hasi aurretik fakturatuko da, egingo dela baieztatzen den unean, hain zuzen. Ikastaroa osorik egiten ez bada, ez da zenbatekoa itzuliko..

Parte-hartzaileek segurtasuneko oinetakoak eraman beharko dituzte.

IZEN EMATEAK

<https://forms.office.com/r/71J7UjTw9w>

¹LAPLaren 19. art.; 1215/1997 EDaren II.2.1 eranskina; Metalaren IV. Hitzarmenaren 90. art., II. Eranskina. C27